

EGIARI ZOR

Aurkezpena

Koldo Izagirre, 2014-05-23

Errealitate barreiatu eta hein handi batean suntsitu bateko xedeak eta bideak birsortzea dauka helburu kontakizun orok. Historiaren etena jarraitasun batean lotzea.

Jarraitasun honek, nolabait, iragana nobelatu egiten du: behar bezala uler dezagun, narratzailea ez dela fikziotan ari ikus dezagun, oharrak, komentarioak, interpretazioak erantsi behar izaten dizkigu irakurleoi. Horrela, desegina uste genuena, jasogaitza uste genuena, orainaldi bihurtzen zaigu: testu eta testuinguru, gertatua eta lekukotza. Horixe dauka liluragarri, hain zuzen, kontakizunak.

Kontakizun bat eskaini digu Madariagako Iulenek: bere errealitatearen zatia eta bere egiaren osoa.

Kontakizun berezia da ordea *Egiari zor*: narratzailea dugu pertsonaia nagusia bere joan-etorrietan, bere ilunaldietan, ihesietan, kartzeletan, bere aukera eta oztupoekin, bere ekintzekin, bere iritzi eta ezusteeekin, bere lagunekin, burkideekin eta burkide etsaituekin. Eta bere bizitzaren zatiek osatzen duten anabasa hori dena antolatzeke abertzaletasuna du kohesio, edo, zehazkiago, ETA.

Abertzaletasuna, frankismoa, eboluzio politikoa, zatiketak, ekintzak, erorketak, norberaren manuak eta damuak, izua, sasia, herria, herriaren kontzeptua, duintasuna galdu nahi eza... Ezinezkoa da horrelako konplexutasuna liburu batean biltzea. Dokumentuak eta ezagutzak, inork gutxik bezala eduki izan ditu Madariagako Iulenek eskura eta esku artean. Baina autobiografia bat ez da dokumentuz eraikitzen ahal, baizik oroitzapen argi eta lauzoz, oharkabeko eta nahitarako ahanzturaz, estilo honetaz edo hartaz eta, jakina, interpretazio ideologikoz.

Norberaren historia kontatzea lan eskerga da, amaierarik ez duen curriculum vitae bat suposatzen du. Barka iezadazu Iulen, pitokeria hau: Pistola bat ekarri omen zenuen Txekoslovakiatik, autoaren motorrean gorderik, 1968 hartan. Horixe diozu, besterik gabe, pistola bat ekarri zenuela Txekoslovakiatik autoaren motorrean. Horrelaxe, alegia deus ez. Baina, esaguzu, nolakoa da Txekoslovakia? Astirik ez? Nork eman? Saldua? Kaserna batean? Mafia? Garagardorik ez? Non lo? Noren auto? Non barrena? Bakarrik? Bidean pintxazorik ez? Zer eguraldi? Nolatan Txekoslovakia? Nola iragan zenuen muga? Ez al zara oroitzen Europa erdia

elurpean zegoela? Zer zinen orduan, lokomotoretako ingeniari ingelesa? Komunista zaharren baten kontaktua? Garagardo erosle handia? Txekieraz ere badakizu?

Autobiografiarik xumeenak ere, inoiz azkenduko ez genukeen hipertestua eskatzen du.

Horregatik, kontakizunak hasmenta eta akabantza ukan dezan, narratzaileak hitzarmen bat sinatu behar du bere buruarekin. Bere buruarekin lehenik, eta irakurlearekin ondoren. Hemen daukagun narratzailearen kasuan, baita erakunde armatu batekin ere: ondorioz, historiarekin.

Bere buruarekin sinatutako hitzarmenean, narratzaileak oreka bilatzen du, esan lezakeena eta isildu nahi ez duena haztatu behar duelako.

Irakurlearekin sinaturiko hitzarmenean, narratzaileak konplizitatea bilatzen du, iraganetik jaso duen errealitatearekiko leialtasuna eskatzen digulako.

Historiarekin sinaturiko hitzarmenean, martirioa bilatzen du, kritika eta kondena politiko guztien jomugatzat eskaintzen duenez bere burua, narratzailea egiari zor zaiolako.

Esan behar batek, garrantzizko detaile batzu-batzuk garbi uzteko premia lehergarriak gidatu du idazlearen eskua.

Hainbat irakurketa daukala liburu honek, alegia.

Hainbat desafiori egin diola aurre egileak.

Hagitz atsegina da horrelako liburuak irakurtzea, baina arrunt zaila da horrelako liburuak idaztea: beste bat balitz bezala ikusi behar du narratzaileak bere burua, aktore bihurtzen da, aktore eta zuzendari, narrazioaren gaia bera da, eta bera da narrazioaren eramailea: objektua eta subjektua da, heroia eta kontalaria, urruna eta hurbila, hura eta hau, hemen agoen gizon hauxe. Eskizofrenia sortzailea. Narratzailea auzilari eta epaile da aldi berean, ezinezko objektibotasuna da berea, kontatzen digun auto-historiak mekanismo ugari eta bihurrietan daukanez sorburua beti: auto-justifikazioa, aitorpena, nartzisismoa, kontu kitatzea, kausa baten aldarria, idaztearen plazera, kapritxo linguistikoak, sormen literarioaren beharra...

Paradoxa, bai, narratzaileak zinezkotasuna eskaintzen baitu beti, historia handiari hainbat puntualizazio egin nahi izaten dionez.

Erronka handia, Madariagako Iulenek egin duena: tituluak berak adierazten digu asmoaren handia. Narratzaileak, urtetsu, abentura berri batean sartzeko kuraia izan du, bizitutakoa kontatzeko abenturan, bera den

heroia gertakariekin eta iraganekin ez ezik orainarekin harremanetan jartzeko.

Kontakizunean aitzina egin arau jabetuko gara Bilboko gazte txiletar euskaldun hark zer edo zer egin duela, ahalegindu dela eman zioten aukera hura, bizitzeko aukera hura zer edo zertan mamitzen. Hauxe da nire ustez liburuaren baliorik handienetakoa, azaleko irakurketak, edo kritika historiko edo politiko hutsak sekula atzeman ahal izanen ez duena.

Autobiografia hau ideal galduaren historia da: gazte garaiko xalotasuna, noski, baina batez ere bere belaunaldiak buruz eta bihotzez bere zeukan arrazoi unibertsala da narratzaileak galdu duena.

Tristura eta amorrua aldi berean.

Berak sortu zuen ETA gartsu eta gardena, galeran ere garaile zen erakunde hura endekatu izana deitoratzen du, ene iduriko, liburuko ia pasarte guztietan, zuzenean edo zeharka Madariagako Iulenek. Aunitz haserre eta mindura pairatu behar izanen zituen, eta ez labur, horrelako bitalismoa ageri duen heroiak.

Azken finean, ETArrik gabeko ETAkide baten ekintza dugu liburu hau: hiztegia eta etika berreskuratzeko ahalegina. Herriari egia zor, eta egiari ni neu zor, alegia, narratzailea.